



NAFARROAKO PARLAMENTUKO

ALDIZKARI OFIZIALA

VIII. legegintzaldia

Iruña, 2011ko urriaren 28a

22. ZK.

A U R K I B I D E A

E SAILA:

Jabeldurak, mozioak eta adierazpen politikoak:

- Mozioa. Horren bidez, Espainiako Gobernua premiatzen da iruzur fiskalaren aurkako borroka hobetu eta optimizatu ahal izateko araudia alda dezan. Socialistas de Navarra parlamentu-taldeak aurkeztu du (2. or.).
- Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da itxaronzerrendei buruzko azterlan bat egin dezan. Nafarroa Bai parlamentu-taldeak aurkeztu du (3. or.).
- Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da mantentzeko Ubarmin Klinikako eta ospitaleguneko sukaldeen titulartasuna eta kudeaketa publikoa. Marisa De Simón Caballero andreak aurkeztu du (4. or.).

F SAILA:

Galderak:

- Galdera, Odol Bankuak eginiko giza leukozito-antigenoen laginen (HLA) analisisiei buruzkoa, Asun Fernández de Garaialde y Lazkano andreak egina (6. or.).
- Galdera, laneko arriskuen azterketa egiteko moduari buruzkoa, Asun Fernández de Garaialde y Lazkano andreak egina (6. or.).
- Galdera, Iruzur Fiskalaren Aurkako Planaren ondoriozko kuota-erregularizaziotik eratorritako zenbatekoak aurrekontuetan duen eraginari buruzkoa, Manu Ayerdi Olaizola jaunak egina (7. or.).
- Galdera, enkarguak enpresa publikoen artean banatzeari buruzkoa, Manu Ayerdi Olaizola jaunak egina (8. or.).
- Galdera, barne-produktu gordinaren areagotze-parametro batzuk sartzearen araberrako diru-bilketaren gaineko aurreikuspenari buruzkoa, Manu Ayerdi Olaizola jaunak egina (8. or.).
- Galdera, jakiteko Moderna Fundazioko Patronatuko kideei inolako ordainsaririk ordaindu ote zaien, Manu Ayerdi Olaizola jaunak egina (9. or.).
- Galdera, Legasako Arcelor-Mittalen lantegiaren balizko jarduera-amaieraren gaineko aurreikuspenari buruzkoa, Fernando Ibiltzieta Olleta jaunak egina (9. or.).
- Galdera, Aranoko Heineken-Amstelen garagardo-nabe zaharrei buruzkoa, Fernando Ibiltzieta Olleta jaunak egina (10. or.).
- Galdera, Tafallako Fotón enpresak jasota edo jasotzeko dituen laguntza publikoei buruzkoa, Fernando Ibiltzieta Olleta jaunak egina (10. or.).

E saila:

JABELDURAK, MOZIOAK ETA ADIERAZPEN POLITIKOAK

Mozioa. Horren bidez, Espainiako Gobernua premiatzen da iruzur fiskalaren aurkako borroka hobetu eta optimizatu ahal izateko araudia alda dezan.

SOCIALISTAS DE NAVARRA PARLAMENTU-TALDEAK AURKEZTU DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2011ko urriaren 24an egindako bilkuran, Eledunen Batzarriari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Socialistas de Navarra parlamentu-taldeak aurkezturiko mozioa, zeinaren bidez Espainiako Gobernua premiatzen baita iruzur fiskalaren aurkako borroka hobetu eta optimizatu ahal izateko araudia alda dezan.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Mozioa Osoko Bilkuran eztabaidatzea eta zuzenketak aurkezteko epea bukatzea eztabaidari ekiteko bilkura-egunaren aurrekoaren eguerdiko hamabietan.

Iruñean, 2011ko urriaren 24an

Lehendakaria: Alberto Catalán Higuera

MOZIOAREN TESTUA

Socialistas de Navarra parlamentu-taldeak ondoko mozioa aurkezten du Legebiltzarreko Osoko Bilkuran eztabaidatu eta bozkatzeko; honen bidez, Espainiako Gobernua premiatzen da, iruzur fiskalaren aurka borrokatzeko dituen eskumenen barruan, eskura dituen tresna eta baliabide guztiak hobetu eta optimizatu ahal izateko araudia alda dezan.

Socialistas de Navarra parlamentu-talde honen iritziz, gizarteak, zenbait alditan agerian jarri dugun bezala, ondorio larriak ordaindu behar ditu iruzur fiskalaren ondorioz: diru-sarrera publikoak murrizten dira, eta horrek eragin nabarmena du zergadun zintzoek jasaten duten presio fiskalean; zerbitzu publikoen eta gizarte-prestazioen kalitatea baldintzatzen du; eta eragile ekonomikoen jarduera distortsionatzen du, halako moduan non zergak ordaintzen dituzten enpresek zergarik

ordaintzen ez dutenen bidegabeko lehia pairatu behar baitute.

Finean, iruzur fiskala da tributu-sistema ororen ekitate-ezaren osagai nagusia. Botere publikoek iruzur-jokabideen aurrean izan beharreko jarrerak ez du soilik jokabide horiek detektatzera eta erregularizatzen bideratu behar, ezpada ez-betetze horiek gertatzea ekiditera ere, azpimarra jarritz iruzurraren aurkako borrokaren disuasio-izaeran eta erraztuz, orobat, zerga-betebeharrak modu boluntarioan betetzea.

Komenigarria da zerga-iruzurraren aurka borrokatzea ahalbidetzen duten arauak gaurkotzea eta aldatzea, asko dira eta horretarako arrazoiak: justizia eta ekitatea, diru-bilketa optimizatzea –bereziki egungo krisi ekonomikoko egoeran– eta defizitaren helburuak betetze aldera administrazioek gastua doitu beharra.

Arau juridiko horiek, hala nola zigor arloko legediak, Foru Komunitatearen lurralde-esparruaz gaindikoak dira zenbait alderditan, Estatuko legediaren parte baitira, baina horien norainokoak zuzen-zuzenean eragiten die administrazio eskudunen gaitasunari.

Halatan, gure jarduteko ahalmenak eta eskumenek berezkoak dituzten foru-jarduketak deuse-tan ere galarazi gabe, beharrezkoa da, zerga-iruzurra nazioko nahiz nazioarteko gertakaria den neurrian, Espainiako Gobernuak lehentasuna ematea eta iruzur hori eskala handian planifikatzeko jarduketak eragozteko, tipo penalak gogortuz, bai eta pertsona juridikoen abusuzko erabilera ere.

Estatuak nazioarteko erakundeetan defendatu beharko du paradisu fiskalen isolamendua eta herrialdeen arteko kapital-mugimenduen garrantasuna. Orobat defendatu beharko du tributu agentzien, Lan Ikuskaritzaren eta Gizarte Segu-

rantzaren Diruzaintza Nagusiaren arteko koordinazioa, azterketa bateratu bat egin ahal izateko hartara zerga, lan, gizarte eta ondare arloko informazioari buruz.

Mozioaren testua

Nafarroako Parlamentuak Espainiako Gobernua premiatzen du araudia alda dezan eta bere esku dauden tresna nahiz bitarteko guztiak bere eskumenak baliatuz hobetu eta optimiza ditzan, zerga-iruzurraren aurkako borroka optimizatzeke eta hobetzeko. Hartara, ondokoak eginen ditu gutxienez ere:

- Zerga-iruzurreko delituengatik zigorrak gogortu.
- Zerga arloko delituen preskripzio-epa luza-tu.
- Informatzeko betebeharrak ezarri finantza-entitateei, paradisu fiskaletara eginiko transferen-

tzien kasuan. Transferentzia horiei zigorrak ezarri.

- Polizia fiskal bat egituratzeko aukera aztertu.
 - Nazioarteko erakundeetan defendatzea paradisu fiskalen isolamendua eta herrialdeen arteko kapital-mugimenduen gardentasuna.
 - Koordinazioa bultzatu tributu agentzien artean, bai eta tributu agentzien, Lan Ikuskaritzaren eta Gizarte Segurantzaren Diruzaintza Nagusiaren artean ere.
 - Bere eskumeneko lege- eta arau-neurriak ezarri, pertsona juridikoen abusuzko erabilera ekiditeko.
 - Lurraldeen arteko eta nazioarteko iruzur-mugimenduak eta -plangintzak jazarri.
- Iruñean, 2011ko urriaren 14an
Eleduna: Juan José Lizarbe Baztán

Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da itxaronzerrendei buruzko azterlan bat egin dezan.

NAFARROA BAI PARLAMENTU-TALDEAK AURKEZTU DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2011ko urriaren 24an egindako bilkuran, Eledunen Batzarri entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Nafarroa Bai parlamentu-taldeak aurkezturiko mozioa, zeinaren bidez Nafarroako Gobernua premiatzen baita itxaronzerrendei buruzko azterlan bat egin dezan.
2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialen argitara dadin agintzea.
3. Mozioa Osoko Bilkuran eztabaidatzea eta zuzenketak aurkezteko epea bukatzea eztabaidari ekiteko bilkura-egunaren aurrekoaren eguerdiko hamabietan.

Iruñean, 2011ko urriaren 24an

Lehendakaria: Alberto Catalán Higuera

MOZIOAREN TESTUA

Nafarroa Bai parlamentu-taldeko eledun Patxi Zabaleta Zabaletak, Legebiltzarreko Erregelamenduan ezarritakoaren babesean, itxaronzerrendei buruzko azterlan bat egitera premiatzeko ondoko

mozioa aurkezten du, Osoko Bilkuran eztabaidatu eta bozkatzeko.

2011rako aurrekontu-murrizketen barruan, Osasun Departamentuak bere gastu arrunta murrizteari ekin dio, Nafarroako Gobernuak dioenez. Murrizketa horrek eragina izanen du gaixo jakin batzuk, kasuko tratamendua jasotze aldera, zentro pribatuetara bideratzerakoan, eta horri gehitzen baldin badiogu aurrekontuko I. kapituluko langileen gastuetako muga, osasun-laguntza espezializatuko itxaronaldiak luza daitezke. Hori dela-eta, bertan behera uzten du, abenduaren 31ra bitarte, Osasun-laguntza Espezializatuko Itxaronaldietako Bermeei buruzko uztailaren 2ko 14/2008 Foru Legeko II. titulua.

Argi dago neurri horrek berekin ekarriko duela itxaronaldiak luzatzea, baina ez dugu uste konponbidea denik ondoren horiek laburtzen saiatzea, orain arte egin den bezala, zentro pribatuetara bideratuz eta inbertsio handiak, ekonomikoak baino ez direnak, eginez; izan ere, horrek ondorio kaltegarriak eragiten ditu sisteman: dirutza xahutzen da eta, ikusi den bezala, ez da itxaronzerrenden auzia konpontzen.

Hori dela-eta, parlamentu-talde honek ondoko erabaki proposamena aurkeztu du:

1. Nafarroako Parlamentuak Osasun Departamentua premiatzen du giza baliabideen eta baliabide teknikoaren arloko beharrezkoen buruzko azterlan bat egin dezan.

2. Nafarroako Parlamentuak Osasun Departamentua premiatzen du itxaronzerreren atzean dauden muiin-muineko arazoiei buruzko azterlan xehatu bat egin dezan, besteak beste ondokoiei buruz: laguntza-maila ezberdinetako giza baliabi-

derik eza, baliabide teknikorik eza edo baliabide horien erabilerari atera beharreko errendimendu-beharrizanak, baliabideak erabiltzeko ohiko ordutegia kontuan hartuta.

3. Nafarroako Parlamentuak Osasun Departamentua premiatzen du azterlan horiek abenduaren 31 baino lehen aurkez ditzan Parlamentuan, parlamentu-taldeek horien berri eta ekarpenak egiteko aukera izan dezaten.

Iruñean, 2011ko urriaren 18an

Foru parlamentaria: Patxi Zabaleta Zabaleta

Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da mantendean Ubarmin Klinikako eta ospitaleguneko sukaldeen titulartasuna eta kudeaketa publikoa.

MARISA DE SIMÓN CABALLERO ANDREAK AURKEZTU DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2011ko urriaren 24an egindako bilkuran, Eledunen Batzarri entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Marisa De Simón Caballero andreak aurkezturiko mozioa, zeinaren bidez Nafarroako Gobernua premiatzen baita mantendean Ubarmin Klinikako eta ospitaleguneko sukaldeen titulartasuna eta kudeaketa publikoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Mozioa Osoko Bilkuran eztabaidatzea eta zuzenketak aurkezteko epea bukatzea eztabaidari ekiteko bilkura-egunaren aurrekoaren eguerdiko hamabietan.

Iruñean, 2011ko urriaren 24an

Lehendakaria: Alberto Catalán Higuera

MOZIOAREN TESTUA

Izquierda-Ezkerra parlamentu-taldeko foru parlamentari Marisa de Simón Caballerok, Legebiltzarreko Erregelamenduan ezarritakoaren babesean, ondoko mozioa aurkeztu du Osoko Bilkuran eztabaidatu eta bozkatzeko:

Ospitaleguneko –Bideko Ama Birjina eta Nafarroako Ospitalea– eta Ubarmin Klinikako sukaldeak direla-eta izandako azken gertakariak iradoki-

tzen dute ospitale horietako sukaldeak kanpora atera edo pribatizatuko direla.

Gure ustez, ikuspuntu kliniko batetik, sukaldeak pribatizatzea osasun-zerbitzu bat pribatizatzea da; izan ere, gaixoen eta gaixo ospitaleratuen dieta, kasurik gehienetan, prozesu terapeutikoaren beste atal bat da. Kasu horietan, dieta egunero planifikatu behar da, eta, sarritan, baita unean-unean ere, gaixo bakoitzaren beharizan klinikoaren arabera.

Euskarri nutrizionala tratamendu mediko bat da, eta, hortaz, dieta osasun-tratamenduaren parte bat da. Alegia, badira dieta pertsonalizatuak, dietetika-teknikariak prestatzen dituztenak eta sendagile nutrizionista batek gainbegiratuak, zeinak orobat gainbegiratzen baititu eguneroko dieta basalen osaera eta gaixoen beharizanen eta bilakaeraren arabera gaixo horien ardura duten sendagileek prestatu eta aldatzen dituzten dietak.

Bestalde, bi ospitale horietako sukalde-zerbitzuen funtzionamendua ikusita, dietak kalitatezkoak eta prezioaren aldetik doi-doiak dira. Edozein kasutan, zerbitzua garestia delako hobeki kudeatu beharra dagoela frogatuko balitz ere –ez da hori kasua– zerbitzua beti hobetu liteke, baina aurrezte aldera zerbitzua kanpora ateratzea/pribatizatzea ez litzateke inolaz ere justifikatuta egonen.

Batetik, kalitatea eta malgutasuna galduko liriteke, eta bestetik, asistentziaren kalitatea. Zer enpresa pribatuk hartzen du zerbitzu bat bere gain, etekinik lortu gabe? Orobat, kudeaketa ezin

da entitate pribatu baten esku utzi, sendagile baten jarraibideak beteko dituena.

Europako Kontseiluak argudio horiek bermatu ditu ospitaleetako elikadura eta zerbitzu nutrizionari buruzko ebazpen baten bidez, zeinean modu sistematikoan esaten baitu euskarri nutrizionala gaixoen tratamenduaren parte dela.

Lan-ikuspuntutik, zerbitzu hori pribatizatzeak berekin ekarriko luke behin-behineko egungo plantillaren % 80 langabeziara bidaltzea.

Gure iritziz, zentzugabekeria bat da Nafarroako Foru Komunitateko Administrazioaren eta haren erakunde autonomoen zerbitzuko E mailako lanpostuak oposizio bidez betetzeko Lan Eskaintza Publikoko deialdia aldatzea eta Osasun Departamenturako diren 102 lanpostu –horien artean sukaldeko lanpostuak– bertatik kentzea (deialdia onetsi zen Nafarroako Administrazio Publikoaren Institutuko zuzendari kudeatzailearen martxoaren 7ko 23/2011 Ebazpenaren bidez).

Oposizio horietara 12.000 oposiziogile aurkeztu ziren, onartuen behin-behineko zerrendaren arabera (Nafarroako Administrazio Publikoaren Institutuko Sarrerarako Hautapenaren Zerbitzuko zuzendariaren uztailaren 5eko 24/2011 Ebazpena),

oposizio hori prestatzen denbora asko daramatenak.

Hori dela-eta, ondoko erabaki-proposamena aurkeztu dugu:

1. Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernu premiatzen du Ubarmin Klinikako eta Ospitaleguneko (Bideko Ama Birjina eta Nafarroako Ospitalea) sukaldeen titulartasuna eta kudeaketa publikoa mantentzeko, beharrezkoa baldin bada sukalde horiek egokituta, titulartasun eta kudeaketa publikoko sukalde berri bat eraikitzen den bitartean (Ospitalegunearen kasuan), sukalde zerbitzua zentralizatu, hobetu eta optimizatzeko bidea emanen duena.

2. Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernu premiatzen du Nafarroako Foru Komunitateko Administrazioaren eta haren erakunde autonomoen zerbitzuko E mailako lanpostuak oposizio bidez betetzeko Lan Eskaintza Publikoko deialdia mantentzeko eta, horrenbestez, eskainitako 167 lanpostuak ere bai (deialdia onetsi zen Nafarroako Administrazio Publikoaren Institutuko zuzendari kudeatzailearen martxoaren 7ko 23/2011 Ebazpenaren bidez).

Iruñean, 2011ko urriaren 19an

Foru parlamentaria: Marisa De Simón Caballero

F saila:
GALDERAK

Galdera, Odol Bankuak eginiko giza leukozito-antigenoen laginen (HLA) analisisiei buruzkoa.*ASUN FERNÁNDEZ DE GARAIALDE Y LAZKANO ANDREAK EGINA*

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2011ko urriaren 24an egindako bilkuran, Eledunen Batzarri entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Asun Fernández de Garaialde y Lazkano andreak aurkeztutako galdera, Odol Bankuak eginiko giza leukozito-antigenoen laginen (HLA) analisisiei buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Osoko Bilkuran izapidetzea.

Iruñean, 2011ko urriaren 24an

Lehendakaria: Alberto Catalán Higuera

GALDERAREN TESTUA

Nafarroa Bai parlamentu-taldeko foru parlamentari Asun Fernández de Garaialde y Lazkano andreak, Legebiltzarreko Erregelamenduan ezarritakoaren babesean, ondoko galdera aurkeztu du, Nafarroako Gobernuko Osasuneko kontseilariak Osoko Bilkuran ahoz erantzun dezan:

Hedabideetan irakurri ondoren Odol Bankuak gainezka egin duela hezur-muinaren emaila-kopurua igo delako eta kontuan hartuta beharrezkoa dela HLA laborategi bat eta Odol Bankutik HLA laborategi hori kendu zela, non eta nola aztertzen dira lagin horiek?

Iruñean, 2011ko urriaren 1ean

Foru parlamentaria: Asun Fernández de Garaialde

Galdera, laneko arriskuen azterketa egiteko moduari buruzkoa.*ASUN FERNÁNDEZ DE GARAIALDE Y LAZKANO ANDREAK EGINA*

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2011ko urriaren 24an egindako bilkuran, Eledunen Batzarri entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Asun Fernández de Garaialde y Lazkano andreak aurkeztutako galdera, laneko arriskuen azterketa egiteko moduari buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Osoko Bilkuran izapidetzea.

Iruñean, 2011ko urriaren 24an

Lehendakaria: Alberto Catalán Higuera

GALDERAREN TESTUA

Nafarroa Bai parlamentu-taldeko foru parlamentari Asun Fernández de Garaialde y Lazkano andreak, Legebiltzarreko Erregelamenduan ezarritakoaren babesean, ondoko galdera aurkeztu du, Nafarroako Gobernuko Osasuneko kontseilariak Osoko Bilkuran ahoz erantzun dezan:

Osasuneko kontseilariak 2011ko irailaren 22ko Osoko Bilkuran ahoz erantzun zion Osasunbidea-Nafarroako Osasun Zerbitzuan toxikazio, neke edo arrisku bereziko egoeren gaineko azterlana noiz egin behar duten jakite aldera parlamentari honek egindako galderari, eta hitzez hitz esan zuen: "...zuk zeuk esan duzunez, erraz jarri didazu,

zeren ziurta baitiezazuket azterlan hori egitea izan dela Osasunbidea-Nafarroako Osasun Zerbitzuko Laneko Arriskuei Aurrea hartzeko Zerbitzuko buruari eman zaion lehendabiziko aginduetako bat" (2011ko irailaren 22ko 4. NPAO). Baieztapen hori eta gero, egun gutxitara onetsi zuen Nafarroako Gobernuak urriaren 6ko 1/2011 Foru Lege-dekretua, zeinaren bidez ukitzen baita martxoaren 17ko 6/2011 Foru Legea, lan arriskuei dagokienez.

Galdera:

Gauza jakina baldin bazen martxoaren 17ko 6/2011 Foru Legea aldatuko zela, kontseilariak 2011ko irailaren 22ko Osoko Bilkuran iragarritako azterlana zer dela-eta ari zen egiten?

Iruñean, 2011ko urriaren 18an

Foru parlamentaria: Asun Fernández de Garalde y Lazkano

Galdera, Iruzur Fiskalaren Aurkako Planaren ondoriozko kuota-erregulaziotik eratorritako zenbatekoak aurrekontuetan duen eraginari buruzkoa.

MANU AYERDI OLAIZOLA JAUNAK EGINA

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2011ko urriaren 24an egindako bilkuran, Eledunen Batzarri entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Manu Ayerdi Olaizola jaunak aurkeztutako galdera, Iruzur Fiskalaren Aurkako Planaren ondoriozko kuota-erregulaziotik eratorritako zenbatekoak aurrekontuetan duen eraginari buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Ekonomia eta Ogasun Batzordean izapidetzea.

Iruñean, 2011ko urriaren 24an

Lehendakaria: Alberto Catalán Higuera

GALDERAREN TESTUA

Nafarroa Bai parlamentu-taldeko foru parlamentari Manu Ayerdi Olaizola jaunak, Legebiltza-

reko Erregelamenduan ezarritakoaren babesean, ondoko galdera aurkeztu du, Nafarroako Gobernuko Ekonomia eta Ogasuneko kontseilari Álvaro Miranda jaunak Batzordean ahoz erantzun dezan:

2011ko aurrekontuetan hasiera batean aurreikusitako dirubilketa 3.258 milioi eurokoa zen. Gobernuak diru-bilketari dagokionez 2011rako eman duen azken aurreikuspena 3.121 milioi eurokoa da. Zenbateko horietako zer parte heldu da Iruzuraren aurkako Planaren ondorioz kuotak erregularizatzetik?

Miranda jaunak urriaren 11ko agerraldian adierazi zuenez, 2012ko aurrekontuak egite aldera Nafarroako Gobernuak erabiliko duen dirubilketa-aurreikuspena 3.198 milioioi da. Zenbateko horretako zer parte uste da helduko dela kuotak erregularizatzetik?

Iruñean, 2011ko urriaren 19an

Foru parlamentaria: Manu Ayerdi Olaizola

Galdera, enkarguak enpresa publikoen artean banatzeari buruzkoa.

MANU AYERDI OLAIZOLA JAUNAK EGINA

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2011ko urriaren 24an egindako bilkuran, Eledunen Batzarri entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Manu Ayerdi Olaizola jaunak aurkeztutako galdera, enkarguak enpresa publikoen artean banatzeari buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Ekonomia eta Ogasun Batzordean izapidetzea.

Iruñean, 2011ko urriaren 24an

Lehendakaria: Alberto Catalán Higuera

GALDERAREN TESTUA

Nafarroa Bai parlamentu-taldeko foru parlamentari Manu Ayerdi Olaizola jaunak, Legebiltza-

rreko Erregelamenduan ezarritakoaren babesean, ondoko galdera aurkeztu du, Nafarroako Gobernu-ko Ekonomia eta Ogasuneko kontseilari Álvaro Miranda jaunak Batzordean ahoz erantzun dezan:

Miranda jaunak urriaren 11ko agerraldian informatu zuenez, Nafarroako Gobernuak berak egindako enkarguen ondorioz enpresa publikoek 2010ean izandako diru-sarrerak 56,7 milioi eurokoak izan ziren; alegia, negozio-bolumenaren % 19,9koak.

Hona galdera: Bolumen hori nola banatzen da enpresa publikoen artean? Negozio-bolumenarekiko zer ehuneko egiten du, kasu bakoitzean?

Iruñean, 2011ko urriaren 19an

Foru parlamentaria: Manu Ayerdi Olaizola

Galdera, barne-produktu gordinaren areagotze-parametro batzuk sartzearen araberako diru-bilketaren gaineko aurreikuspenari buruzkoa.

MANU AYERDI OLAIZOLA JAUNAK EGINA

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2011ko urriaren 24an egindako bilkuran, Eledunen Batzarri entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Manu Ayerdi Olaizola jaunak aurkeztutako galdera, barne-produktu gordinaren areagotze-parametro batzuk sartzearen araberako diru-bilketaren gaineko aurreikuspenari buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Osoko Bilkuran izapidetzea.

Iruñean, 2011ko urriaren 24an

Lehendakaria: Alberto Catalán Higuera

GALDERAREN TESTUA

Nafarroa Bai parlamentu-taldeko foru parlamentari Manu Ayerdi Olaizola jaunak, Legebiltza-

rreko Erregelamenduan ezarritakoaren babesean, ondoko galdera aurkeztu du, Nafarroako Gobernu-ko Ekonomia eta Ogasuneko kontseilari Álvaro Miranda jaunak Osoko Bilkuran ahoz erantzun dezan:

Miranda jaunak urriaren 11ko agerraldian adierazi zigun Nafarroako Gobernuak, diru-bilketari dagokionez, BPGaren 2012ko hazkunde erreala % 1,9koa izanen delako aurreikuspena darabilela aurrekontuak egite aldera.

Horra galdera: Nafarroako Gobernuak darabilen eredu matematikoan BPGaren hazkunde-aurreikuspena % 1,9koa dela izan beharrean % 1,1ekoa, % 1,3koa, % 1,5ekoa, % 1,7koa edo % 2,1ekoa izan balitz, zein izanen zen, hurrenez hurren, diru-bilketaren aurreikuspena?

Iruñean, 2011ko urriaren 19an

Foru parlamentaria: Manu Ayerdi Olaizola

Galdera, jakiteko Moderna Fundazioko Patronatuko kideei inolako ordainsaririk ordaindu ote zaien.

MANU AYERDI OLAIZOLA JAUNAK EGINA

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2011ko urriaren 24an egindako bilkuran, Eledunen Batzarri entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Manu Ayerdi Olaizola jaunak aurkeztutako galdera, jakiteko Moderna Fundazioko Patronatuko kideei inolako ordainsaririk ordaindu ote zaien.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Ekonomia eta Ogasun Batzordean izapidetzea.

Iruñean, 2011ko urriaren 24an

Lehendakaria: Alberto Catalán Higuera

GALDERAREN TESTUA

Nafarroa Bai parlamentu-taldeko foru parlamentari Manu Ayerdi Olaizola jaunak, Legebiltzara

rreko Erregelamenduan ezarritakoaren babesean, ondoko galdera aurkeztu du, Nafarroako Gobernu-ko Ekonomia eta Ogasuneko kontseilari Álvaro Miranda jaunak Ekonomia eta Ogasun Batzordean ahoz erantzun dezan:

Moderna Fundazioko Patronatua sortu zenez geroztik, ordainsariren bat eman al zaie Patronatuko kideei edo patronatu horretako Zuzendaritza Batzordeko kideei? Hala baldin bada, zenbatekoa izan da ordainsaria eta zer printzipiori jarraikiz ordaindu zaie? Etorkizunari begira, ordainsari-sistemarik adostu al da bi organo horietakoren batean parte hartzeagatik? Hala baldin bada, zenbatekoa izan da ordainsaria eta zer printzipiori jarraikiz ordaindu zaie?

Iruñean, 2011ko urriaren 20an

Foru parlamentaria: Manu Ayerdi Olaizola

Galdera, Legasako Arcelor-Mittalen lantegiaren balizko jarduera-amaieraren gaineko aurreikuspeni buruzkoa.

FERNANDO IBILTZIETA OLLETA JAUNAK EGINA

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2011ko urriaren 24an egindako bilkuran, Eledunen Batzarri entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Fernando Ibiltzieta Olleta jaunak aurkeztutako galdera, Legasako Arcelor-Mittalen lantegiaren balizko jarduera-amaieraren gaineko aurreikuspeni buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Nafarroako Gobernuari igortzea, Legebiltzarreko Erregelamenduko 192. artikulua agindutakoari jarraikiz, idatzizko erantzuna bidal dezan.

Iruñean, 2011ko urriaren 24an

Lehendakaria: Alberto Catalán Higuera

GALDERAREN TESTUA

Bildu-Nafarroa parlamentu-taldeko foru parlamentari Fernando Ibiltzieta Olleta, Legebiltzarreko Erregelamenduan ezarritakoaren babesean, ondoko galdera aurkeztu dio Nafarroako Gobernuari, idatziz erantzun dezan:

Kanpotik heldutako albisteen arabera, litekeena da etorkizun hurbil samar batean Arcelor-Mittalen Nafarroako Legasa herrian duen planta ixtea.

- Nafarroako Gobernuak ezer aurreikusi al du, egungo industria-jarduera eteten baldin bada egungo lanpostuak bederen mantenduko dituen beste batek har dezan haren lekua?

Iruñean, 2011ko urriaren 19an

Foru parlamentaria: Fernando Ibiltzieta Olleta

Galdera, Aranoko Heineken-Amstelen garagardo-nabe zaharrei buruzkoa.

FERNANDO IBILTZIETA OLLETA JAUNAK EGINA

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2011ko urriaren 24an egindako bilkuran, Eledunen Batzarri entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Fernando Ibiltzieta Olleta jaunak aurkeztutako galdera, Aranoko Heineken-Amstelen garagardo-nabe zaharrei buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Nafarroako Gobernuari igortzea, Legebiltzarreko Erregelamenduko 192. artikulua agindutakoari jarraikiz, idatzizko erantzuna bidal dezan.

Iruñean, 2011ko urriaren 24an

Lehendakaria: Alberto Catalán Higuera

GALDERAREN TESTUA

Bildu-Nafarroa parlamentu-taldeko foru parlamentari Fernando Ibiltzieta Olletak, Legebiltzarreko Erregelamenduan ezarritakoaren babesean, ondoko galdera aurkezten dio Nafarroako Gobernuari, idatziz erantzun dezan: ·

Nafarroako Gobernuak aurreikusi al du inolako laguntza edo babes instituzionalik, Heineken-Amstel garagardoaren garai bateko Aranoko nabeetan –gaur egun bertan behera utzietan– enplegua sor dezakeen industria- edo merkataritza-jardueraren bat jarri ahal izateko?

Iruñean, 2011ko urriaren 19an

Foru parlamentaria: Fernando Ibiltzieta Olleta

Galdera, Tafallako Fotón enpresak jasota edo jasotzeko dituen laguntza publikoei buruzkoa.

FERNANDO IBILTZIETA OLLETA JAUNAK EGINA

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2011ko urriaren 24an egindako bilkuran, Eledunen Batzarri entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Fernando Ibiltzieta Olleta jaunak aurkeztutako galdera, Tafallako Fotón enpresak jasota edo jasotzeko dituen laguntza publikoei buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Nafarroako Gobernuari igortzea, Legebiltzarreko Erregelamenduko 192. artikulua agindutakoari jarraikiz, idatzizko erantzuna bidal dezan.

Iruñean, 2011ko urriaren 24an

Lehendakaria: Alberto Catalán Higuera

GALDERAREN TESTUA

Bildu-Nafarroa parlamentu-taldeko foru parlamentari Fernando Ibiltzieta Olletak, Legebiltzarreko Erregelamenduan ezarritakoaren babesean, ondoko galdera aurkezten dio Nafarroako Gobernuari, idatziz erantzun dezan:

Tafallako Fotón enpresak, zeinak mota orotako ibilgailu % 100 elektrikoak egiten baititu, zer laguntza publiko, pizgarri fiskal nahiz bestelako dirulaguntza jaso du edo jasoko du? ·

• Adierazi Nafarroan 2011 honetan zehar matrikulatu diren propulsio % 100 elektrikoko (hots, ez hibridoko) ibilgailuen eta autobusen kopurua.

Iruñean, 2011ko urriaren 19an

Foru parlamentaria: Fernando Ibiltzieta Olleta

